BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

218

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 9koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, (beherago zehaztu erakundeek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko) Nazio Batuen Erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat 2009. urterako laguntzak emateko deialdiaren barruan ezarritakoa. Ebazpen honen bidez, Itziar Rubio Barrera lankide boluntarioari beka emateko Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco erakundeari emandako laguntzari uko-egiteko eskaera onartzen du.

Garapen Lankidetzarako zuzendariaren 2009ko urriaren 23ko Ebazpenaren babespean, Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco erakundeari 15.450 euroko diru-laguntza eman zitzaion, Itziar Rubio Barrera lankide boluntarioari beka emateko (NBE-2009BA/0054).

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2011ko irailaren 30ean bidalitako komunikazioan, partzialki becari uko-egiteko eskaera bidali zuen, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzak arautzen dituen otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuak (erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak ematekoak diren laguntzak), 9. artikuluan, ezartzen du lankide boluntarioak bekari uko egiteak kobratutako eskubide ekonomikoen itzulketa proportzionala ekarriko duela eta, hala behar izanez gero, ordaindu gabekoak ez direla ordainduko.

Uko egindako zenbatekoa kalkulatzeko, garatu gabeko beka aldia hartuko da kontuan.

Kasu honetan, itzuli beharreko kopurura 8.250 eurokoa da.

Proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzenzariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat 2009rako laguntzak emateko deialdiaren barruan, Itziar Rubio Barrera lankide boluntarioari emandako laguntzari uko egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco Erakundeak dagokion kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 8.250 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 9a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.